

## **Belartza EAeko Justizia Auzitegi Nagusira**

Belartza 2 Gelditu plataformatik, Belartza goikoan Belartzako Harrobian jatorria zuten material pilaketa eta isurketa egiteko Enrique Ramos zinegotziak emandako baimenaren inguruan gure izenean Haritzalde Naturzaleen Elkarteak sartutako Administrazioarekiko Auziaren kontrako epaiaren aurrean, aditzera eman nahi dugua Haritzaldek EAeko Justizia Auzitegi Nagusian errekurtsua sartzeko asmoa duela.

Auziaren ebazpenean irakurri daiteke literalki: << **la existencia de serias dudas jurídicas, en atención a las distintas posiciones y versiones o hechos alegados por las partes, que generaban seria incertidumbre sobre a quien asiste la razón, sea desde motivaciones de justicia intrínseca y de activo en el proceso, sea por lo defendible jurídicamente de cualquiera de las soluciones impetradas**>>. Beraz Epaileak berak aitortzen duenez, gaia ez zen garbia eta bai eztabaidagarria.

Hortaz, ez dugu ulertzen **zalantzazkoa bazen zergatik ez dituen Haritzalderen abokatuak argudiatutakoa aintzat hartzen. Epaian ez dira aipatzen aurkezturiko arrazoibide eta elegiteen erreferentziak, ezta aurkezturiko jurisprudenzia. Epailearen ebazpenak, gure ustez, ez dauka oinarri sendorik eta ez dago sakonean arrazoitua, zuzenbide eta hirigintza mailan inkoherentzia nabarmenak ikusten ditugularik**. Era berean, nekez ulertzen da zergatik epaia denboran hainbeste luzatu den, batez ere aurkeztu genduen auzi luze eta zabalaren gaintetik pasatzen denean. Beraz eta ondorioz, epaiaren aurkako elegitea jarriko dugu Auzitegi Nagusian justizia egingo delakoan.

**Donostiako Udalak berak, salatutakoak, Epaileak epaian esaten duenaren kontrako aitortzen du, harri isurketa berehala kentzeko eta zonaldea lehengoratzeko duela gutxi luzaturiko aginduan bertan paisaian erakindako inpaktuak eta kalteak onartzen baititu**. Horregatik enpresa sustatzaileari zigor espediente ireki dio dagoeneko isuna bat ezarriz. Horrela Udalak **<considera que no existe justificación o motivación suficiente que haya intención de iniciar los trámites de una nueva ordenación, ya que puede que no se terminen aprobando>**. Udalak literalki dio: **<los daños a los intereses públicos son claros al mantener mas allá del tiempo un depósito que degrada el paisaje>**. Errealitatea ordea, beste bide interesatu batetik dioa. Horrela, "administrazio ingenierritza" erabiliz, Udalak ez badu saihesten, sustatzaileek epeak luzatzeko asmoa dute azken epaiak atera aurretik haien proiektua, oraindik onartuta ez dagoena, gauzatuta nahi baitute. Isuritako materialak Belartza 2an erabili nahi dituzte eta trikimailu guztiak erabiliko dituzte hiriak behar ez duen makropoligonoa eraikitzeko. **Udalaren esku dago**.

Edozein kasutan, argitu beharra dago auzia Udalak emandako baimenaren ingurukoa zela, hau da erabaki administratibo baten aurkako elegitea zen, besterik ez. Epaitegi horretan ez dira aztertu ingurumen gaineko inpaktuak ezta bestelako balizko delituak, hori ez baita Epailearen eskumena ezta ardura auzi honetan. **Delitu ekologikoa egon den eta objektiboak diren kalteak norainokoak izan diren, ekintzen ondorioak eta nahitatasuna zein erantzuleak aztertzeko eta epaitzeko ahalmen osoa Penaleko Epaitegiak du eta bertan argituko da**. Salaketa jarri genuen eta ikertzen ari da. **Hurrengo astean auzian pertsonatzeko eta salaketa zabaltzeko asmoa dugu**.

**Belartza 2 Gelditu plataforman EAeko Justizia Auzitegi Nagusian epaiaren aurka jartzeko asmoa dugun errekurtsuaren aurrean baikor gaude. Ez dugu zalantzan jartzen Auzitegi horren independentzia eta ziur gaude zuzenbideko azterketa sakona eta egokia eginez gure alde egingo dutela jurisprudenzia ezarriz.**